



*IKASKIDE PROIEKTUA II. Jardumaldiak  
2012ko martxoa*

## Elkarrekin ikasiz ikastearen atsegina eta gogoia sustatuz

Ainara Artetxe eta Meltxor Artetxe

### 1. SARRERA

Korapilatsua, zaila, buruhauste ugari ematen duen gaiari helduko diogu gure hitzaldian, batzuetan etsipenean murgiltzen gaituena eta beste zenbaitetan esperantza emailea... Aurtengo Jardunaldi hauei bere izaera ematen dien gaia da hain zuzen: **elkarrekin ikastearen atsegina lortu** nahiarena, beste era batera esanda, MOTIBAZIOAREN gaia jorratzera goaz.

Ondorengo minutuetan zuekin konpartitu nahi genuke, IKASKIDE taldetik, **elkarrekin ikastearen eta motibazioaren arteko loturaren**, eta momentu batzuetan lotura faltan inguruan egindako hausnarketak. Hitzaldi hau, beraz, gure artean izandako hausnarketa eta hizketaldietan oinarritzen da. Jaso ezazue, beraz, horrela: honen inguruan lanean gabiltzan talde baten gogoeta. Zuekin guztiokin konpartitu nahi dugun gogoeta eta, zergatik ez, eraiki nahi dugun gogoeta; ez baita gogoeta itxia, oraindik asko baitira ditugun kezka, galderak, zalantzak eta gutxi erantzunak...

Esan nahi dugu, halaber, beste modu batera egitea zaila bailitzateke, gure eguneroko esperientzian oinarritzen diren gogoetak konpartitu nahi ditugula zuekin. Beraz, bi ezaugarri ditu gure gaurko proposamen honek: **gogoeta** izaera eta gure **esperientzian** eta biziaren oinarritua dela.

### 2. BEREZKOA (GERTATU BEHARKO ZUKEENA...)

Has gaitzen bada. Nonbaitetik hastearren abiapuntu interesgarria da gure hizkeltaditxo honetako izenburua hartzea, bertan aurkitzen baititugu gure gogoetaren gakoak. Hauek osatuko dute gure fokua eta hortik luzatuko dugu begirada:

## 2.1. Elkarrekin ikasiz **ikastearen atsegina** eta **gogoa** sustatuz.

Delvaley (1994) dioen gisa: “(...) espeziearen eboluzio luzean zehar biziraupenerako onuragarriak diren jokoerak hautatu dira eta, zalantzarik gabe, **IKASTEKO** gaitasuna eta ikastearen **ATSEGINA**, horietako bat da”.

Badaukagu, beraz, espezie gisa, gizakiak garen heinean, **IKASTEKO** joera eta gaitasun berezkoa. Baina ez bakarrik gaitasuna, baizik eta prozesua **ATSEGINA** izateko joera naturala. Ikasten dugu eta gustura egiten dugu; gozamina dago prozesuan, berez. Hau horrela izaki, eta gustagarria den guztia legez, **GOGOIA** eransten zaio prozesu honi. Gustagarria den heinean gogoa pizten da, ikasteko gogoa.

Eboluzioaren ikuspegiarekin jarraituz, Pagelen hitzetan “Gure bizi-estrategia **SOZIALAK** izatean datza”. Aristotelek bere “Zoom politikon” aldarrikatu zuen aspaldi gizakiaren izaera soziala eta politikoa azpimarratuz. Beraz, komunitateetan antolatzen gara hazteko, hezteko... eta funtsean bizirauteko. Vygotskyren pentsamendu jarraiki, bestearen beharra daukagu, **besterekin elkarrekintzan** hazten gara, hezten gara eta eraikitzen dugu gure ikaste prozesua.

Orain arte esandakoaz, ondorioztatu dezakegu badaudela ezaugarri batzuk berezko zaizkigunak: **IKASTEIA eta berau ATSEGINA izatea, ikasteko GOGOIA eta besteekin batera, BESTEEKIN ELKARREKINTZAN hazten, garatzen eta eraikitzen dugula gure ikaskuntza, gure mundua.**

Hau horrela izaki, besteekin batera egonaz ikasteko gogoa piztu eta berau atsegina izango da. Hori ez da, baina, beti ematen. Honi gehitzen badiogu kanpotik nahi dugula gure haur eta gazteek kompetentzia batzuk garatzea, ezagutza batzuk barneratzea eta bere egitea... egoera zaildu egiten da.

Nola pizten edo sortzen da gogoa ikaste prozesua gustagarria ez bada? Atsegina den horrek gogoa pizten du, baina atsegina ez bada oztopoak izango ditugu, atsegin ezak pasibotasuna edota kontrako jarrera sor dezake. Norbaitek esan dezake “Beti ezin izan daiteke atsegina. Gustagarria, atsegina ez den horren aurrean ahalegina egiten ere trebatu behar gara!”. Izan daiteke horrela izatea. Baina ahalegin hori ere martxan jartzeko, saiakera egiteko gutxieneko motibazioa egon beharko da. Momentu honetan pertsonaren motiboak entzun beharko ditugu, zerk mobilizatzen duen.

Ur hauetan sartu aurretik eta aipatutako ezaugarriak kontutan hartuz, edozein interakzio egoeratan funtsezkotzat hartzen ditugun bi ardatz ematen dira:

### **Ardatz 1: Adostasunaren ardatza.**

Bi muturrak ondorengoak lirateke:

- **Ni:** interesak , espektatibak, norberaren motibazioa, inplikazioa....
- **Bestea(k):** bestearen edo besteen espektatibak, motibazioak, inplikazioa....

Norbanakoa eta besteak ditugu beraz, ardatz honetako elementuak. Elkarrekintza ematen den heinean gutxienez funtsezko elementu hauek emango dira.Elkarrekintza honetan adostasuna eman daiteke edo ez.

Ardatz honetan zehar joan etorri desberdinak egingo dira. Joan etorriak erritmo desberdinetan emango dira. Batzuetan bidean oztopo, harri, handiak aurkituko dira (hemen gatazka esanguratsuak eman daitezkeelarik) beste batzuetan harri horiek txikiagoak izan daitezke. Bide honek mugarri desberdinak izan ditzake. Batzuetan *sprint-ean* egingo dugu, beste batzuetan *maratoia* izango da... Hala ere,bidea hor dago, eta guk Ikaskide taldeak bidea bide honen eraikuntzan eta bide horretan ibiltzearen apustua egiten dugu.

Momentu batzuetan, egoera batzuetan ardatzeko muturrak oso urrun egon daitezke (norbanakoen interesak, nahiak, espektatibak... oso urrun daude). Beste batzuetan, aldiz, bidea laburragoa da. Beste batzuetan “norbanakoa” taldean galtzen da eta “alienazioa” eman daiteke. NI-ak hor egon behar du, bakoitzak beretik aportatzeko, eraikitzeko.

Distantziak direnak direlarik, taldean aritzeak adostasunerako bidea egitea eskatzen du ezinbestean. Eta bide hau egiteko ezinbestekoa da besta ardatz bat.

### **Ardatza 2: komunikazioaren ardatza:**

Ardatza honetako muturrak ondorengoak dira: **Hitz egin** (norberaren burua adieraztea) eta **Entzun**.

Adostasunaren ardatzean zehar ibiltzeko ezinbestekoa zaigu komunikazioaren ardatza. Momentu batzuetan norbanakoak bere burua entzun beharko du, beste batzuetan besteak entzungo ditu, batzuetan nire burua adierazko dut, beste batzuetan besteak hitz egingo du.... Ardatzak mugitzen dabilta elkarrekintzan.

Eskolak, irakasleak ardatz hauen bidean eskaintzea , lantzea aukera eskaini beharko luke. Bidea eta biderako motxila eskaini beharko luke. Hemen beste elementu bat kontutan hartu behar dugu: bidea eskaini bai baina **bidea egiteko nahia? Gogoa?**

Hemen motibazioaren uretan sartzen gara, eta eman daitezkeen motibo desberdinak ulertzen ahalegindu behar gara: Zerk motibatzen du ikasle bakoitza? Zerk mobilizatzen du ikaslea? Hemen aniztasuna da nagusi, bakoitza motibatzen duena propioa baita: “Pertsonala eta transferiezina”.

Motibo desberdinen aniztasuna ezagutzea, horien aurrean sentsibilitatea adieraztea eta atenditzea ezinbestekoa da. Motiboak izaera desberdinetakoak izan daitezke.

Autore desberdinak har genitzake (A. Maslow, Herzberg,...). Hauekin guztiekin De la Herranek (1999) egiten duen sailkapena hartuko dugu oinarri gisa. Lehen ardatzean kokatuz gero ondorengoak aurki genitzake:

### **Oinarrizko beharrak:**

- **NORBANAKOARENAK:**
  - **Biziraupenarekin lotutakoak:** ura, jakiak... espazioa, loa, atsedena...
  - **Segurtasun emozionalarekin lotutakoak:** bai fisikoki eta bai psikikoki seguru egotearen beharra, mehatxu gabe, arrisku gabe, mesprezuz, irainez.. libre egotea.
  - **Sentsazioekin lotutakoak:** erlaxazio, gozamen, irrikaren... beharra.
- **OINARRIZKO-SOZIALAK:**
  - **Errefortzuarekin lotutakoak:** onespenearekin, sariarekin, besteen irribarrean, tratu adeitsuaren, kontaktu fisikoaren, arretaren... behararekin lotuta.
  - **Pertsona eta talde esanguratsuekin lotutakoak:** errespetatua eta onartua izatearen beharra, integratuta sentitzearen beharra...
  - **Autoestimarekin lotutakoak:** onestua izatearen beharra, zerbaitetan “ona” izatearen beharra, besteen aurrea arrakasta izatearen beharra...

Badira beste motibazio batzuk oinarrizkoak ez direnak (hau da, asetuta egon ezean denok mobilizatzen gaituztenak). Horien artean, besteak beste:

- **Kognositiboa/ezagutza bidezkoa:** ezjakintasunaren hautematea, ulertzeko beharra, sortzeko, erlazionatzeko, ikaskuntzaren bidez aletasuna bilatzea...
- **Estetikoak:** edertasunaren bilatzea, egitura, naturaren logika ulertzea...
- **Autoeraikuntzarekin eta hobekuntza sozialekin lotutakoak:** askatasun beharra, intimitate beharra, konpromiso beharra, eskuzabaltasun beharra, autogarapena...
- ...

Hauetako behar batzuk neutralizatu daitezkeen beharretan oinarritzen dira. Oinarrizkoak adibidez, ase daitezke eta neutralizatzen ditugu: segurtasuna emanez, errefortzuak emanez,

onartuaz, onestuaz... Beste behar batzuk, aldiz, betetzen direnean, asetzen direnean, beharra handitu egiten da (adibidez, kognozitiboekin gertatzen da hau).

Baina hemen kontutan izan behar dugu, oinarrizko beharrak neurri batetan aseak ez badaude zaila dela beste mota bateko beharrak sortzea. Ikasle bat ez bada segurtasunean edo minimoki integratua sentitzen, oso zaila egingo zaio ezagutza eta ikaskuntzarekin lotutako motibazioa indartzea.

Herzbergek zioen bezala badaude faktore batzuk higienikoak direnak: oinarrizkoak: betetzen ez badira sortzen duten insatisfakzio oso handia da eta asetetzen direnean ematen duten satisfakzio handia izan daitekeen arren ez dute askoz ere gehiago motibatzen. Beste batzuk aldiz, berez, asetzen direnean nahia handitzen dute (Kognozitiboak, estetikoak, hobekuntza sozial eta pertsonalekin lotutakoak...).

Beraz, bigarren hauek berez motibagarriak izateko garrantzitsua hein batean behintzat, oinarrizkoak aseak izatea da.

Hau dena zergatik eta zertarako diogu? Funtsezkoa delako ikasleek izan ditzaketen motibo desberdinak eta errekonozitzea honi erantzuna emateko ahal dugun neurrian. Aurretik aipatutako bidea egiteko hauek errekonozitzea funtsezkoa da. Egin ezean adostasunaren bidean harriak baino harresiak aurkituko ditugu eta ez dugu jakingo nola hauek gainditu.

Hemen beste hausnarketarako espazio bat zabal genezake: motibazio eta behar hauek ikasleek izan ditzaketen bezala guk geuk irakasle gisa ere baditugu. Ez gara desberdinak honetan. Beraz, **ez litzateke interesgarria izango bakoitzak hausnartzea zeintzuk diren egitekoaren eta jardunaren motibazioak?**

Hurrengo baterako utzi genezake puntu hau baina gogoeta lagungarri litzatekeela deritzogu. Hala ere, ez dugu albo batera erabat utziko irakasleengan fokaturiko baikara.

Meltxorrenarekin lotura

### 3. ERREALITATEAN GERTATZEN DENA

Beraz, esan dezakegu irakasleok gelan topatu beharko genituzkeen ikasleak motibatuak, elkarrekin ikasteko interesatuak, kuriositatez beteak, genetikoki eta garapen ebolutiboaren aldetik prestatuak, gaitasunez beteak eta inteligentzia anitzetan trebatuak izan beharko luketela (berriz Piaget, Vigotsky, Chomsky, Gardner, Bruner... *ekarri* behar ditugu hau guztia egiaztatzeko?). Baldintza bakarra: eskolak berak eskaini behar dituen motibazioarako faktore "higienikoak" edo ezinbestekoak neurri egokian (edo gutxienean behintzat)

hornituko dituela bermatzea. Behin hori bermatuta, ia berez egingo lukete ikasleek gure bi ardatzen lanketa: norberak bere interesak adierazi (irakasleak ere bai), besteenak entzun, talde adostasunak lortu... eta aurrera ikaskuntza prozesuarekin!

### 3.1. Baina **berez** aurkitu behar genukeen **motibazioa ez dugu ikusten**, ez da sentitzen gelan.

#### **Eta non dago, bada arazoa irakasleontzat?**

Ez dezagun erantzun oraindik, saia gaitezen aurretik esan dugunarekin lotura egiten: Nahiz eta gizarteak gero eta eskakizun eta exijentzia gehiago jartzen dizkigun (ezagutzaren transmisore, bitartekari, zurkaitz, bideratzaile, didakta, erraztatzaile eta eredu... izan behar dugu, besteak beste) ez genuke zailtasunik izan behar horrelako ikasle taldeekin aurrera joateko, euren ikaskuntza prozesua bideratzeko, gure hezkuntza eta curriculum proiektuak garatzeko, gure eguneroko gelako jarduna arrakastaz burutzeko eta zerrendatu berri ditugun eginkizun horiek denak betetzeko...

#### **Berez, berriz galdera bera: non dago bada arazoa?**

Eta oraingoan bai, edozein irakasleek lasai emango lukeen erantzuna dator: ez dugu egoera hori aurkitzen gure eskoletan, gure geletan. Ikasleen deskribapen hori ez da erreal; gure ikasleak ez daude motibatuak, ez diegu sumatzen ikastera bultzatzen dituzten kuriositate hori, ez dugu ikusten ikastearen atsegina sentitzen dutenik, ikasteko esfortzua (bakarka nahiz taldean) naturaltasunez egitera bultzatzen dituzten indarririk gabe sentitzen ditugu... Gaur egun ia inork ez du ukatzen gure ikasleek psikologia ebolutiboan hain argi ikusten diren gaitasun horiek dituztenik, baina ezin dugu esan, oro har, ikasle motibatuak ditugunik geletan. Eta IKASKIDE proiektuan aholkularitza lanetan gabiltzanok, geure irakasle lanean egunero sentitzeaz gain, ikastetxeekin eskuharki ditugun harremanetan argi ikusten dugu desmotibazioaren problematika hau.

Jakina, orokortzen ari gara eta orokortze guztiak bezala, arriskutsuak izateaz gain, benetako egiatik urrundu egiten dira. Eta hau egiaztatzeko nahikoa da Haur Hezkuntzako edo LHko lehen zikloetako edozein gelatan sartzea, selektibitatearen atarian dagoen edozein ikaslearen ikaste-agenda begiratzea, Lanbide Heziketako hainbat ikasleren ibilbidea aztertzea edo unibertsitateko ikastalde askoren jokabideak arretaz behatzea.

Izan ere, eskola guztiak ez dira berdinak, curriculum proiektu oso ezberdinak izan ditzakete, egoera sozioekonomiko, soziolinguistiko eta soziokultural anitzetakoak daude - bakoitzak bere eraginekin- ikasleak eta ikasle taldeak ere ez dira berdinak, esan bezala

adinak asko eragiten du, egiten ari diren ikasketek era bai eta beste hainbat eragile daude ikasleek izan dezaketen motibazioaren mailan eragiten. Baina esan dezakegu, asko erratzeko beldurrik gabe, ikasteko motibazio urria eta interes falta nabaria direla irakasleok ikaskuntza irakaskuntza prozesuen diseinurako, antolaketarako eta bereziki aplikaziorako sumatzen ditugun arazoetatik handienetarikoak. Eta gure esperientziaren arabera, LHren amaieran eta bereziki DBHn kokatuko genuke arazoaren “pikorik” larriena (erreserba guztiarekin esaten dugu hala ere).

Eta non dago errua, nonbaiten egotekotan? Non dago desbideratzearen arrazoa? (garapenaren zientziak, antropologiak eta abar esaten digutenaren eta errealitatearen arteko desbideratzea alegia). Nola gertatzen da, bada, berez ikasle motibatuak eduki behar gurekin eta ikasle desmotibatuak aurkitzea?

Lan luzea izango litzateke, luzeegia seguruenik, arrazoi horiek bilatzea eta bakoitzaren eragina aztertzea. Arrazoi estrukturalak azalduko lirateke alde batetik: gizartearen bilakaerarekin loturikoak batzuk, eskolak gizartearen aldaketa azkarretara egokitzeko dituen zailtasunak ere bai, eta hezkuntza-administrazioetik hasita irakasleok geletara daramatzagun proposamen kurrikularrek ikasleen interesekiko duten urruntasuna ere hor dago (hau berrartuko dugu geroxeago), gurasoek “hezkuntza-ardura” eskolarengan delegatzeko joera iraunkorra..., beste askoren artean.

Eta arrazoi koiunturalak eta kontingenteak ere eragiten dute motibazioaren mailan, iraupenean eta intentsitatean: tokian tokiko ezaugarrien eta egoeren arabekoak, ikastetxe, ikastalde edo eskola zehatz baten ezaugarri edo egoeren arabekoak, irakasleon izaerarekin edo egiteko moduarekin loturikoak, ikaslearentzat arlo batek edo besteak izan dezakeen erakargarritasun maila, ikasleen erritmoak errespetatzeak, bakoitzak bere egiteko modutik eta gaitasunetik ikasteko aukera izateak...

### 3.2. Irakaslea bere motibatzaile-arduraren aurrean:

Eta hemen dator guk gaur, irakasle gisa adierazi nahi genukeen lehen mezua: **edozein dela ere ikasleen motibazio eskasaren arrazoa edo arrazoi multzoa, ez da ikaslearen edo ikasle taldearen errua.**

Gure adierazpenak, berez, ez du aparteko esanguratasunik. Hau da, lasai eta gaur bezala egoera *hausnartzailean* eta baikortasunez beterik gaudenean denok ikus dezakegu argi hori horrela dela, baina gelako elkarreragin-egoeran gaudenean, gure helburuak, edukiak eta nahitaez “eman beharrekoak” (horrela esaten dugu gehienetan) landu ezinik gabiltzanean,

ikasleen motibazio ezaren eta asperduraren ondorioz euren jokabide desatseginak azaltzen direnean, gelako dinamika eta talde kudeaketak huts egiten digunean, ezina gailentzen hasten zaigunean... bestela etortzen zaizkigu pentsamenduak, iritziak eta erruen egozpenerako joerak.

Askotan frustrazioak eraginda, hezkuntzako profesionalon artean ari garenean, maiz entzun daiteke horrelakoak (bereziki irakasle-geletan): “Ez dute ezertako interesik eta horrela ezin da klase eman”. “Ikasi nahi ez badute, alferrikakoa da gure aldetik saiatzea, ez dute ikasiko”. “Etxean ere ez dira eskolara etortzea baikortu dezaten saiatzen eta horrela zer nahi dute?” “Hemen gu ahaleginduagatik, familiak ez badu etxean jarraipena egiten (guk egindakoarekin koherentzian, jakina), ez dago gauza handia aurreraterik”. “Orain ez dira jabetzen, baina guk erakutsi nahi dieguna garrantzitsua da eta konturatzen direnerako beranduegi izango da...”

Eta bakarka hartuta, testuingurutik aterata, horietako esaldi bakoitza eta guztiak egiak direla esan daiteke. Nolanahi ere, oso zaila egiten zaigu egoera horietan eta horrelako ikasleekin gure lana ondo betetzeko ahaleginak egitea, beste era batera esanda, gure motibazioa ere beherantz joaten zaigu nahi baino gehiagotan...

Baina Francesco Tonucci (*Frato* maitagarriak) bideo [honen](#) (12:00) bidez esaten digun bezala, ikasle horiek dute, bereziki, eskolaren premia. Horientzako antolatu behar dugu, norbaitentzat antolatzekotan, eskola. Horrela bakarrik lortuko dugu guztiontzako eskola. Ikasteko zailtasunak dituztenek, gogorik gabe etortzen direnek, atzetik familiaren laguntzarik ez dutenek, **horiek behar dute eskola!**

Agustín de la Herrán-ek (2006) dioen bezala, “La educación ha sido y será una forma de violencia”. Izan ere, ikasleak ez du eskolan egon nahi eta askotan ez du ikasi nahi guk proposatzen dioguna. Egile berak beste hainbat gako ematen dizkigu gure ardura horretan hobeto kokatzeko (beltzatuak gureak dira):

- *La motivación se define por un para qué de naturaleza profundamente cognoscitiva y emocional que posibilita el aprendizaje. Sin motivación, no hay aprendizaje de calidad.*
- *Es imposible motivar, si por ello se entiende actuar desde los motivos de los alumnos, porque cada uno de sus comportamientos tiene causas propias. O como expresa el viejo aforismo japonés: “Se puede acompañar al discípulo a la orilla del río, pero no se puede beber por él”.*
- ***La motivación escolar de los alumnos depende en gran medida de la actuación de los docentes. De hecho, los intentos por promoverla son siempre agradecidos por la mayoría de ellos.***



- *Cada alumno es un mundo de vivencias distinto: lo que a uno le motiva, a otro puede que no o que lo haga en menor medida.*
- ***Los alumnos desmotivados son muy pocos. Lo más frecuente es que sus motivos sean otros que los que los docentes creemos mejores para ellos.***
- *A la vista de algunas situaciones familiares, de algunos comportamientos de sus profesores y de algunas circunstancias personales, no nos debe extrañar que haya alumnos profundamente desmotivados o con otros motivos. ¿Cómo estaríamos nosotros en su lugar?*

Garbi dago, beraz, irakasleok gure ardura hartu behar dugula eta ikasleak motibatzen saiatu. Baina nola lortu saiakera irauteko adinako arrakasta? Nola lortu orain baino motibazio gehiago izan dezaten? Lan erraza ez dela argi dago, baina beti esaten dugu konplexutasunean eta zailtasunean egoten dela proiektuen erakargarritasuna ere... Arazo gisa kontsideratu ordez, erronka bezala hartzen badugu, iraunkorragoa izan daiteke gure ahalegina agian. Hona hemen proposamen sorta bat:

#### 4. MOTIBAZIOA ETA IKASTEKO GOGOIA PIZTEKO GIDA

Iturria. Alonso Tapia (2005).

##### **Eragile pertsonalak aktibatu:**

- Ikasleak ikasteko motibatuk egon daitezten, hainbat eragile pertsonal aktibatu behar ditugu haiengan. Eragile horietako batzuk:
  - *Ikasi behar den horri buruzko kuriositatea*, izan ere, zerbaitek kuriositatea pizten digunean denbora eskaintzen diogu gaiari eta hobeto ikasten da. Bidea: irakasle bakoitzak aztertu behar du bere gaian zein izan daitekeen:
    - Galderak, sorpresa-efektuak...
    - Kuriositatea modu naturalean pizteko, ikasleek gauza berriak sumatu behar dituzte ikasgaietan; euren ideiekin bat ez datozen gaiak landuko direla sentitzen badute, hobe; orain arte erantzun ez dituzten galderak edo erronkak sentitu behar dituzte...
    - Ezagutza soila egiteaz gain hainbat esperimendu, proba eta abar egin daitezkeela ikusten badute, aukera gehiago daude kuriositatea piztuazteko, beraz, motibazioren bideak irekitzeko.
  - *Ikasi behar dugun gai, ezagutza edo trebetasun horiek ez menderatzeak ekar ditzakeen arazoek jabetzea. Bideak:*
    - Egoera zehatzen deskribapena (adibide erreal eta ezagunekin bada, hobe...)


- Rol-playing.
  - Hala ere, ez ikasteak suposa dezakeen arazo horrek blokea ez ditzan, ez diegu oso “urrun” jarri behar ikaskuntza-helburua: Vigotskiren *garapen hurbileko esparruan* sentiarazi behar diegu beti, ez errazegi, ez zailegi diren jarduerak proposatuz. Gainera, berehala sentiarazi behar diegu aurrerapenak auto-erregulatzeko laguntza eta tresnak izango dituztela...
- *Ikasi behar dugun hori zertarako izan daitekeen garrantzitsua, esanguratsua, beraientzat izan dezakeen praktikotasuna... ulertzea eta ikasteko erronka onartzea. Bideak:*
    - Aurreko puntuarekin lotzea komeni da, hau da, gaiaren praktikotasuna eraginkorragoa da ikasleak arazoa izan dezakeela intuitzen edo sentitzen duenean azaltzen badiogu, ezjakintasunean dagoela jabetzen bada...
    - Praktikotasun hori zenbat eta ikasleen “mundu arruntetik”, bere egunerokotasunetik hurbilago sentiarazi, orduan eta eraginkorragoa izango da motibazioa, beraientzat testuinguru esanguratsuan gertatuko delako ikaskuntza.
- **Non dugu arazo erreala?:**
    - Gehienetan, gure buruari esaten diogu: “hori ondo dago, baina nire gaia ez da hori, zailagoa da motibazioak pizteko, edo “entzun/irakurri berri ditudan adibideak ez dira baliagarriak niretzat...”... Maiz pentsatzen eta adierazten ditugu antzeko esaldiak.
    - Beraz zailtasuna hau da: gai bakoitzaren praktikotasuna eta baliagarritasuna azaltzeko egoerak ezin ditugu aurkitu. Gehienetan galdera horrela planteatzen dugu: zein egoera izan daiteke baliagarria nire ikasleei gai honetan edo beste horretan interesa pizteko?
    - Zailtasun honetatik ateratzeko aukera batzuk ikuste aldera, hona hemen **lau galdera egoki**, gure ekimena motibazioak piztuarazteko bidean jartzeko:
      - *Zer nahi dut nirek ikasleek benetan ikas dezaten?*
      - *Zertarako izan daiteke baliagarria irakatsi nahi dudan hori jakitea?*
      - *Nire ikasleek izan ditzaketan interesetatik, eurek bizirik dituzten eguneroko egoeretatik, zeintzuk dute erlazioa, zerikusia irakatsi nahi dudan honekin?*
      - *Gelan egin ditzakedan jardueretatik, nire klasea antolatzeke egon daitezkeen era ezberdinetatik, zeintzuk jarri ditzakete erlazioan irakatsi nahi dudana eta ikasleen interesak?*

- **Jakina, aurreko guztiak zera eskatzen du:** ikasleen ezagutza, euren egunerokotasunarekiko hurbilpena, dituzten interesei buruzko informazioa izatea, interes horien onarpena (ahal den maila handiengan bederen). Haienganako sinesgarritasuna eta espektatiba positiboak premiazkoak dira!!
- **Honekin batera, helburuak eta jarduerak negoziatu** daitezkeen neurrian, asko irabazia izango dugu motibaziorako. Helburuak kompetentzietan, hau da, lortuko dituzten gaitasun errealetan azaltzea komenigarria da.
- **Gauza bera auto-ebaluazio elementuak** txertatzen baditugu. Auto-erregulazio tresnak beti dira lagungarriak, hausnarketara eramango dituzte, aurrerapenak sentitzera, *ikaskuntzaren arrakastaren* sentipenera hurbilduko ditu gehienetan, neurri batean edo bestean...


# IKASTEKO MOTIBAZIOA ETA INTENTZIOA ERRAZ DEZAKETEN BALDINTZAK, ERAGILEAK

(Iturria: Alonso Tapia, J (2005). “Motivación en la escuela y en la familia”)

## Ikaskuntzaren hasiera: nola sortu ikasteko gogoia, intentzioa, motibazioa?







#### Konpetentzietan oinarritutako curriculumaren markoa

- Testuingurua
- Konpetentzia espezifikoak eta zeharkako konpetentziak (oinarrizkoak?)
- Hezkuntza kooperatiboan landu beharreko konpetentziak

#### Ikaskuntza kooperatiborako printzipioak (ZER?):

- Elkardependentzia positiboa
- Aurrez aurreko eta aldireko interakzioa
- Komunikazioa-horizontaltasuna
- Egitura-antolaketa
- Bakoitzaren taldearen eta prozesuaren ebaluazioa

#### Ikaskuntza kooperatiborako ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK (NOLA?):

- ✚ Egoera errealei erantzun praktikoa eman
- ✚ Eredu egokiekin elkarerraginean aritu (“modelajea”)
- ✚ Trebatze progresiboa (sekuentzia luzeen bidezko lanketa)
- ✚ Aldian aldiko laguntzak (osagaien lanketa)

#### Ikaskuntza kooperatiborako ESTRATEGIAK eta TEKNIKAK:

- **Talde motak**
  - ✚ Ikaskide-taldeak (“oinarrizkoak”)
  - ✚ Aritu taldeak
  - ✚ Noizbehinkako taldeak
- **Estrategia eta teknika metodologikoak:**
  - ✚ Komunikazioa erraztekoak
  - ✚ Parekideekin tutoretzak
  - ✚ Ikaskide taldeak
  - ✚ Jolas kooperatiboak

#### Ikaskuntza kooperatiboaren EBALUAZIOA

- Bakarkako eta taldeko lana ebaluatu behar
- Ebaluazioaren markoa
- Ebaluazioaren funtzioak
- Ebaluazio motak
- Ebaluazioaren osagaiak
  - ✚ Irizpideak
  - ✚ Adierazleak
  - ✚ Tresnak

#### Ikaskuntza kooperatiborako proiektuaren diseinurako lehen urratsak: (PROIEKTUAREN MUINA)

- Proiektuaren testuingurua zehaztu (gaia, ikastaldea, irakaslea, iraupena, saio kopurua ...)
- Lortu nahi ditugun konpetentzia espezifikoak hautatu/erabaki eta hauek lantzeko ekimen edo aktibitate nagusia erabaki.
- Lortu nahi ditugun zeharkako konpetentziak hautatu/erabaki eta horretarako egokiena den talde metodologiak hautatu.
- Ebaluazioari buruzko helburuak/erabakiak hartu (irizpideak)
- Ebaluaziorako adierazleak eta tresnak hautatu, antolatu.
- Proiektua ebaluatu eta hobekuntza ildoak definitu.